

TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN

**BIZIRIK IRAUTEKO ESKULIBURUA
ORDEZKOENTZAT**



**INFORMAZIOA
2013ko apirila**

ORDEZKOAK MEHATXUPEAN

Txosten honen helburu nagusia ordezkoei informazio praktikoa helaraztea da. Hala ere gure irizpide orokorrak aipatu nahi ditugu.

Hemen jasota dagoen hainbat eskubide langileen borrokari eta sindikatu batzuen presioari esker lortu dira, beste neurri batzuk, berriz, administrazioen inposizio hutsaren ondorio dira.

STEE-EILASen helburu argia dugu: ahalik eta lan baldintza onenak lortu nahi ditugu egoera larriena pairatzen duten irakasleentzat, eta horiek, zalantzarak gabe, ordezkoak dira. Funtzionarioekin soldatetan eta bestelako eskubideetan parekatzea, egonkortasuna, prekaritatea gutxitzea, lan poltsetan sarbide sistema gardena... bultzatu ditugu beti.

Indarrean dagoen araudian aldaketa ugari egin dira, urteetan, eta gehiago etor daitezke, onerako edo txarrerako. Guztioi dagokigu gauza onak mantentzea eta txarrak aldentzea.

MURRIZKETAK

Azken urteetan langile guztiok etengabeko eraso andana jasotzen ari gara: urteetan borrokari esker lortutako zerbitzu publikoak suntsitzen ari dira, lan baldintzak erabat kaskartzen ari dira, pertsona gehienen erosteko ahalmena jaisten ari da, milaka biztanle pobrezian daude, prestazio sozialak gero eta murritzagoak dira... Lapurreta erraldoia sufritzen ari gara.

Gure sektorean egunetik egunera okertzen da panorama, eta prekarizazioa begi bistean dago: ordezko diren langileei eskainitako plaza eta ordezkapenen kopuruak nabarmenki behera egin du azken urteetan, neurri berriekin kontuan hartzeko adina ordezko lanik gabe geratu dira.

Egoera horretan zentzu osoa du esateak zerbitzu publikoak, hezkuntza barne, indartu behar direla bereziki krisi egoeratan, gehienen beharrak asetzeko; kalitate oneko enplegua izatea guztiak eskubidea dela, eta aberastasuna beste era batera banatu behar dela, gure jendartean gero eta desoreka handiagoak daude eta.

Horregatik guztiagatik esaten dugu irakaskuntza publikoan enplegua suntsitu beharrean postu asko sortu behar direla, murrizketa guztiak atzera egin behar dutela eta langile ordezkoei egonkortasunerako eskubidea dutela. Eskubideak ez ezik memoria ere badugu, 2007ra arte estabilitate akordioa batzuk izan ditugu, zeintzuk modu batean edo bestean babesia ematen zieten ordezkoei lana egin ahala. Orain, berriz, hainbat neurrik ordezkoen kolektiboa araurik gabeko lehia basati bihurtu nahi dute.

ORDEZKAPENEN KUDEAKETA

Zerrendetan sartzeko bide zuzen eta gardenena urtero zerrendak zabaltzea litzateke, izena eman ahala jendea ordenatzea, eta birbaremazioan merituen arabera zerrendak berregitea. Merituak baloratzean ahalik eta irizpide objektiboenak erabili behar dira, sare publikoan egindako lana lehenetsiz.

LEParen emaitza zerrendetan sartzeko balio izateak LEPetara aurkezteko derrigorra ekar dezake, eta, denboraz, nota ere kontuan hartzea zerrendetan.

Postu batzuen puntuazio eta trataera bereziek atea zabal dezakete administrazioaren intereseko lanak lehenestera eta desberdintasunak areagotzera. Kontrola zorroztu behar da arlo horretan.

Esleipen telematikoak esleipen prozesua erraztu eta oporrak disfrutatzen lagundi behar zuen. Baino aurten berriz ere, abuztua esleipen hilabetea izango da, EPErik ez badago ere. Beste modu batean egitea ezinezkoa dela esaten badute ere, gure eskaera argia da: ordezkoek ere oporrak izateko eskubidea dute!

Gainera, Esleipen telematikoekin batera gardentasun eta kontrol eza etorri dira, baita erreklamatzeako epea laburtzea ere.

Kudeaketa arintzeak ez du neurri atzerakoien ezarpenen sinonimo izan behar!!!!

HAUTAGAIEN ZERRENDA KUDEATZEKO ARAUDIA

(2012ko irailaren 11ko EHAA)

Ikastetxe Publikoetan lan egiteko, Hezkuntza Lurralde Delegazioetan kudeatzen dituzten hautagaien zerrendetan egon behar duzu.

ZERRENDEAK OSAKETA ETA KUDEAKETA

ZERRENDETAN SARTZEKO PROZEDURAK

- Zerrendak irekitzeko deialdietan izena ematea.
- Birbarematze-prozesuan, baldin eta beste zerrenda batean bazaude eta behar den titulazioa baduzu, beste espezialitate baten batean sartzea.
- EPE probak gainditzea. EPE gainditu eta plaza lortzen ez dutenek zerrendetan sartzeko aukera dute (gainditutako espezialitatean bakarrik, espezialitate horren zerrendan lehendik ez bazeuden).

ZERRENDAK

Birbaremazio prozesutik zerrenda orokorra ateratzen da, hori erabiltzen dute plazak esleitzeko. Hortaz gain espezialitate bakoitzean zerrenda batzuk egon daitezke. Honako hauek dira, eta orden honetan erabiltzen dituzte (araudiaren 5. artikulua), zerrenda orokorra agortzen bada:

- Oposizioa gainditu dutenen zerrenda.
- Baldintza guztiak beteta, ikasturtean zehar aldi batean irekitzean apuntatu direnena.
- Hizkuntza-eskakizuna bete gabeek osatua, aurreko ikasturteetan zehar irekitzean sortutakoa.

ZERRENDA OROKORRAREN ORDENA

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuengatik arabera ordenatzen da, irizpide hauek kontuan hartuz:

- Irakaskuntza arautuan egindako lana, publikoan eta pribatuan.
- Espediente akademikoaren nota.
- Beste titulazioak.
- Lanbide Heziketako ikasgai praktikoetan espezialitateko lanbide esperientzia.
- Kontserbatorioetako espezialitate instrumentaletan, musika jarduera.

BIRBAREMAZIOA

Ordezkoen zerrendak urtero gaurkotzen dira, apirila eta maiatz artean.

Epe horretan irakasle.net-en bidez **zerbitzu-orria kontsultatu eta zure datuak zuzenak direla** egiazta dezakezu, puntu kopurua barne: sare publikoan egindako zerbitzuek bi hilabeteko puntu 1 gehitzen dute, zaitasun bereziko lanpostuetan salbu, non 3 puntu ematen diren (momentu honetan espelteetako lanpostuak soilik). Zentro pribatuetan egindako lanaldiak bi hilabeteko 0,33 puntu gehitzen du. Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden ikastetxe publikoetan eginiko bi hilabeteko zerbitzuengatik 0,5 puntu gehitzen dira, baldin eta irakaskuntza arautuan bete badira.

Zerrenda bereizietatik orokorrera pasatzeko aukera dute birbaremazioan:

- EPE baten ondorioz sortutako zerrendan daudenek.
- Zerrenda bereizietan daudenek, zerrenda orokorrean sartzeko eskakizun guztiak beteta (hizkuntza eskakizuna, prestakuntza pedagogikoa...)
- Zerrenda bereizietan hizkuntza eskakizunik gabe daudenek, baldin eta lan egin badute.

Birbaremazioak **lan aukerak aldatzeo** ere balio du (zerrenda berezietan daudenek ezin dituzte ordezkapen aukerak aldatu): lurrardeak/zonaldeak, jardunaldi motak eta espezialitateak gehitu edo kendu...

Aldaketak ekartzen zituen araudiak hauetan, baina BERTAN BEHERA UTZI DITUZTE. 2013ko birbaremaziorako lurralteetan zonaldeak finkatu behar ziren:

- Lurralte bakotzean zonalde bat edo gehiago aukeratu ahal ziren, zonalde bakotzeko aukerak bereiziz.
- Gutxienez lurralte bat aukeratu behar zen. Lurralte baterako egindako aukerak (perfila, jardunaldia...) bertako zonalde guztietarako komunak izango ziren. Plaza bat ofizioz esleitzeko, lurralte hori hartuko da zen kontuan.

ZERRENDETAKO LANGILEEN BALIZKO EGOERAK

- Lanean.
- Lanerako prest.
- Jarduera-eten iragankorreko egoera semeak/alabak 3 urte bete arte ("suspensión transitoria" delakoa).
- Aldi baterako baja (urrekoan uko egiteko eskubidea), honako baldintzaren bat betez gero:
 - Gaixotasun arrunta.
 - Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako baja.
 - Haurdunaldian arriskuan izatea edo arriskuko haurdunaldia izatea.
 - Amatasuna, adopzioa eta harrera.
 - Aitatasuna.
 - Odol edo ezkontza-ahaidetasuneko 2.mailara arteko ahaideen gaixotasun larria edo heriotza.
 - Norbera ezkontza edo izatezko bikotea eratzea.
 - Askatasuna kentzea.
 - Hezkuntza administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
 - Ikasketa-beka baten onuradun izatea.
 - Ikasketa ofizialetan edo praktiketan aritzea.
 - Edozein motatako lan-kontratua izatea edo autonomo gisa altan egotea.
 - Atzerrian GKE (ONG) bati zerbitzu ematen egotea.
 - Zerbitzu berezietan egotea.
 - Indarkeria-mota baten biktima izatea.
 - Ahalmeneko protokoloaren ebazpenaren zain egotea.

Aldi baterako baja egoera eragin duen arrazoia sortu eta **10** eguneko epean **egiaztatu behar duzu**, plazarik eskaintzen ez badizute ere.

Aldi baterako baja egoeraren zergatia **amaitzen denean** (edo amaitu baino lehen, ahal bada) lanerako prestasuna ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, hori gertatu eta beranduenez **10** eguneko epean.

UKO EGITEKO ARRAZOIAK

Eskaintza egiten den unean jakinarazi behar da.

- Aldi baterako bajan egoteko baldintza bat betetzea (egiazatzeko 10 egun).
- Plaza jakin gutxi batzuei (berritzeguneak...) uko egin ahal zaie zerrenda espezifiko horretan ez bazaude. Gainera, plaza horietara joateko uko egin ahal zaio betetzen ari den plazari. (34. eta 40. art).
- Esleitu eta hurrengo 15 egunetan postua betetzeko gaitasun falta sumatzea (46. art., protokoloa).
- Minusbaliotasun fisiko batek lanpostuaren zereginak betetzea eragoztea.

ZERRENDETATIK KANPORATZEA

Kanporatzeko arrazoia izango dira honako hauek:

- Ordezkoak berak eskatzea.
- Karrerako funtzionarioa izendatuta izatea kidego horretan.
- Erretirorako adina izatea (70 urte).
- Eskaintzari uko egitea onartutako arrazoirik eman gabe. Horrek espezialitate eta herrialde guztietatik desagertzea dakar.
- Uko egiteko arrazoia ez alegatzea edo ez egiaztatzea, aginduak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.
- Esleitutako lanpostura ez joatea.
- Diziplina-espedientea jasotzea, hutsegite larri edo oso larri batengatik.
- Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea. (45. art).
- Zerrenden garbiketa, birbarematze-prozesu guztietan egingo dute 2017/2018 ikasturterik aurrera. Bost urtez (birbaremazioaren urtea barne) EAEko Hezkuntza Sailarentzat zerbitzu efektiboak eman barik irautea izango da arrazoia kanporatzeko (zerrendetan, gutxienez, bost ikasturte apuntatuta daramatenentzat). Ez dute desberdintzen deituta izan direnen eta izan ez direnen artean.

ESLEIPENAK

KURTSO HASIERAKO ESLEIPENAK

Prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazenaren bidez, ekainaren bigarren hamabostaldian.

Hainbat berri emango dute Hezkuntza Sailaren web orrian eta lurralte ordezkaritzetako iragarki-oholetan:

- Prozesuaren egutegia.
- Derrigorrean esleipen informatikoan parte hartzeko gutxieneko puntuazioa; puntuazio horretara heltzen ez direnek modu boluntarioan parte hartu ahal dute.
- Finkatzeko eskubidea dutenen zerrenda. Horiek ere eskabide orria bete beharko dute, finkapena berresteko edo ukatzeko.

Ondoren bakanteak eskatuko dira.

Eskabidean, bostehun eskaera arte egin daiteke (zehatzak, lanpostu baterako, edo orokorrak, ezaugarri komun bat edo gehiago duten lanpostu multzo baterako).

Edozein kidego, espezialitate eta perfileko plazak eska daitezke eskabide orrian, horietarako habilitazioa izanez gero eta birbaremazioan aukeratu baduzu.

Esleipena puntuazioaren arabera egingo da.

Esleipen informatikoan parte hartu behar dutenei administrazioak plazak esleitu ahal dizkie ofizioz, haien eskatu gabe, baldin eta norberak eskatutakoa lortu ez badu, edota ez badu parte hartu. Ofizioz jasotakoa derrigorrean hartu behar da.

Abuztuaren bukaeran behin-behineko eta behin betiko ebazenak argitaratuko dira. Tartean erreklamazioak egiteko epea dago.

Administrazioak web orrian argitaratuko ditu izendapenak. Hori, hartu duzun lanpostuaren egiaztagiria da.

Bestelako esleipenak. Irailaren lehenengo egunetan, presentziazkak (desagertzen ez badira) eta telefonozkoak izango dira. ♦

Presentziazk esleipenetan ez aurkezteko pisuzko zergatia egiaztagiria behar da hurrengo 5 lanegunetan.

Esleipenen datak: Erne ibili! Oinarrizko egutegia plazaratzen dute, baina txanda batzuetarako bat-bateko deialdiak (ordu batzuk aurretik) egiten dituzte. Hezkuntzaren eta gure web orriean begira.

Arazoak esleipenean: Ikasturte hasierako esleipenean edo ikastetxera heltzerakoan arazorik suertatzen bazaizu (plaza ez existitzea, plazaren definizioa aldatzea, etab.) lehenbailehen Delegaziora jo ezazu eta ordezkari sindikalari jakinarazi, arazoari berehalako irtenbidea bilatzen saiatzeko (hurrengo esleipenera joan...)

Txanda kontratuak: Lan-legepeko kontratuak dira, beraz, **beste ezaugarriak** dituzte. Jardunaldi partziala dute (%75), 5 urte arteko luzera eta ordutegi edo egutegi berezia izan dezakete, beraz erne! Baten bat interesatzen bazaizu, galdu eta informa zaitez lanpostua hartu baino lehen.

Zaintzagatiko plazak: Kontuz! Arrazoi honengatik lizentzia edo murrizketa hartzen dutenak edozein unetan buelta daitezke lanera, eta ordezkapenari amaiera eman. Gauza bera gertatzen da sindikatuetako liberazioekin.

EGUNEROKO ESLEIPEN TELEMATIKO BERRIA (EHAA, 2012ko urriaren 29koa)

MOMENTUZ BERTAN BEHERA UTZI DUTE!

2013-2014 ikasturtean, ordezkapen laburrak ere bide telematikoz esleitu behar ziren. Behar izanez gero egunero egin behar zuten esleipen bakar eta zentralizatua plaza guztiak esleitzeko.

Prozedura ikasturte hasierakoaren antzekoa zen, baina *etengabeko eskaera* aktiba zitekeen, hots, lehentasunak adierazi eta sailkatutako ezaugarriak zituzten postu guztiak eskatu esleipen guztiitarako, une oro adi egon gabe.

Izendapenak SMS edo korreo elektronikoz adieraziko zitzazkien bai ordezkogaiari baita ikastetxeari ere.

INFORMAZIO GEHIAGO: <http://www.stee-eilas.org>

INTERINOEN FINKAPENA, EGONKORTASUNIK EZ

Zerrenda orokorrean puntu gehien dituzten ordezkoie urte ikastetxe berean jarraitzeko eskubidea aitortzen zaie, baldin eta plaza librerik bada. Finkatze sistema horrek mugikortasuna gutxitzen du neurri txiki batean, baina langileen egonkortasunari begira ez dakar inolako bermerik.

Urtez urte gero eta langile gutxiago finkatzen dira.

Nortzuk finkatzen dira?

Urtero, esleipenak egiterakoan, aurreko ikasturtearen esleipenetan emandako jardun osoko plaza-kopurua hartuta, kopuru horren portzentaje batek finkatzeko eskubidea izango du.

Langile batek, finkatua izateko, honako baldintzak guztiak bete behar ditu:

- Finkatzeko eskubidea izan (puntu nahiko).
- Urte osoko lanpostu batean egon izana, edo, gutxienez, otsailaren lehen lanegunetik ikasturtearen amaiera arte ikastetxe berean era jarraian lanean aritu izana.
- Lanpostu libre izatea.

Gaixtasun baja edo etete iragankorreko egoera ematen bada?

Finkatua izateko eskubidea onartuko zaie aurreko baldintzak betez gero.

Zein ikastetxean gauzatzen da finkapena?

Aurreko ikasturtean lanean aritutako ikastetxean (erreferentziako ikastetxea). Bat baino gehiago izan badira, otsailaren lehenengo lanegunean hasi eta ikasturtearen amaiera arte zerbitzuak eten gabe emandako ikastetxea izango da.

Finkapenari uko egiterik ba al dago?

Ikastetxean 2 urtez egotea ezinbestekoa da borondatezko autodesplazamendua eskatu ahal izateko. Eskaera hori esleipen prozesuaren barruan egin daiteke, eta esleipenetan puntuazioaren arabera parte hartu.

Ikastetxe bereko beste lanposturen batean finkatzeko aukerarik ba al dago?

Aurreko ikasturtean betetako lanpostu hori ez balego, ikastetxean libre dagoen beste lanposturen batean finkatu ahal da irakaslea, baldin eta baldintza guztiak betetzen baditu eta lanpostuari dagokion espezialitatean izena emanda badu.

Zer gertatzen da pertsona bat baino gehiago elkartzen badira plaza bakarra betetzeko?

Erreferentziako ikastetxe horretan duten antzinatasunaren arabera ordenatuko dira. Antzinatasun bera izanez gero ordezkoen zerrendan duten puntuaziora joko da eta, azkenik, zerrenda horretan duten hurrenkera erlatibora.

Lanaldi murritzuko lanpostuetan finkatzerik ba al dago?

Ez. Lanaldi osoko lanpostuak baino ez dira erabiliko, eta lanpostua eskuratu eta gero lanaldia murriztea eskatu ahal izango dute.

Bigarren kidetasuneko ikasgaien lanpostuetan finkatzerik ba al dago?

Ez, soilik lehen kidetasuna hartuko da kontuan.

KONTRATUAK ETA ABAR

Ordezkapena lortu baduzu, ikastetxeko idazkaritzara joan eta paperak lehenbailehen bete. Bestela kotizazio egun batzuk gal ditzakezu; paperak ikastetxetik lurrarde ordezkaritzara iritsi eta konprobatu ondoren Gizarte Segurantzara bidali behar baitituzte eta horrek bere denbora darama.

Zure kotizazioak noizbehinka egiaztatzea komeni da; hau, edozein Gizarte Segurantza bulegotan (bertaratuz, zein internetez), zure bizitza laborala eskatuz egin dezakezu.

Bizitza laboral honek garrantzia handia dauka geroari begira, erretiroa eta langabezia-saria honi lotuta baitoaz. Kotizatutako egunak zerbitzu egunak baino gutxiago badira, erreklamazioa egin lurrarde ordezkaritzan eta haren kopia bat (sarrera zigilu eta guztiz) gorde.

Zure ordutegia arreta handiz aztertu, lan hitzarmenaren arabera:

- Lehen Hezkuntzan, gehieneko eskola ordu kopurua 23 da, jolasaldiak barne.
- Bigarren Hezkuntzan, batezbesteko 17 eskola ordu (ikasleekiko tutoretza barne) ematen dira, 18 ordu betetzea ere salbuespen bezala onartuta dagoelarik.
- Lanbide Heziketan 25 klase orduetara arteko irakastaldiko ordezkapenak sor daitezke, baina zatitzeko aukera dago. Zure ordutegia 18 ordutik gorakoa bada, sindikatuan galdu, ematen diren egoerak oso anitzak baitira eta bila daitezkeen irtenbideak ere.

Dena den, zure ordutegiarekin zalantzak izanez gero (lanpostu ibiltariak, jardunaldi murriztuak...) gurekin kontaktuan jar zaitez eta saiatuko gara zure egoera argitzen.

Ordezkapena bukatzerakoan lurrarde ordezkaritzan abisua eman ahalik eta lasterren. Telefonoz deitzeaz gain, faxa bidaltzea gomendatzen dizugu, libre zuadela esanez, eta kopia bat gordetzea. Errakuntzaren bat suertatzen denean, idatziz aurkezturiko dokumentua erantsirik daramaten erreklamazioak soilik onartuko dituzte eta.

Lan jardunaldi murriztua. Aukera ona izan daiteke puntuak pilatzeko, zerbitzu aldiak jardunaldi osoan egindakoak bezala balio duelako, baina soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioa kontratuaren araberakoak izango dira (erdia edo herena, edo, bigarren hezkuntzan, ordu lektiboekiko proportzionala, betiere herenekoa gutxienez).

Adi! jardunaldi murriztuko ordezkapena zure bizilekutik (lurrarde ordezkaritzan jasota dagoen bizilekutik) 50 km. baino urrutago badago, lanpostuari uko egin al diozu zerrendetatik erori gabe. Araudiaren arabera 2013-2014 ikasturtetik aurrera uko egiteko aukera hau desagertzen zen, baina neurri hau ere BERTAN BEHERA UTZI DUTE.

Jardunaldi murriztuko lanpostu batean zaudenean langabeziako prestazioarekin zure soldata osatzeko aukera duzu, baldin eta aldez aurretik eskubide hori sortu baduzu eta jarduna ez baduzu zuk, borondatez, murriztu. LANBIDEN neurri hau zelan aplikatuko litzaizukeen galdu.

*Ikasturte Hasierako Ebazpenean jardunaldi murriztuetako **eskola-orduen banaketaren inguruko** iradokizunak datozen, irakasleen jardunaldia aipatzen den atalean. Begiratzea komeni da.*

Uda kobratu. Zure kontratua, beranduenez, ekainaren 30ean amaituko da, bakantean ez bazaude. Ikasturtean zehar 165 egun (hilabete=30 egun) Ian eginez gero, kontratu berria egingo dizute uztaila eta abuzturako, Gizarte Segurantzaren altan egongo zara, eta puntu bat lortuko duzu 60 egun horiengatik; baina egun gutxiago izan badira, askoz gutxiago kobratuko duzu udan:

Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak	Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak
5 arte	0	101 arte	8
17 arte	1	113 arte	9
29 arte	2	125 arte	10
41 arte	3	137 arte	11
53 arte	4	149 arte	12
65 arte	5	161 arte	13
77 arte	6	164 arte	14
89 arte	7	165tik gora	Uda

Uda osoa kobratzekotan kontratua indarrean izango duzu abuztuaren 31 arte, beraz, epe horretan ez dago langabezia kobratzerik.

Hirurtekoak eta lehenengo seiurtekoa. Zerbitzuetako lehendabiziko hiru edo/eta sei urte metatu bezain pronto ordaindu diezazutela idatziz eskatu behar duzu lurralte ordezkaritzan. Hezkuntza Sailak hitza eman zuen ondorengo hirurtekoak automatikoki ordaintzea, baina halere erne ibili behar duzu. (Gogoratu: urte 1 = 360 egun). Ordezkogaien 4. eta 5. graduei dagokien (sexenioak) diru saria eskura dezakete epai baten ondorioz. Egoitzetan baditugu erreklamazio ereduak.

Langabezia kobratzea. Lan gabe geratzen bazara edo/eta jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu paroa kobra zenezake azken 6 urteetan 360 egun kotizatu badituzu. Kontuz epeekin zeren eta kontratua amaitu ondoren 15 egunetako epea daukazu eskaera egiteko.

IRALE eta GARATU. Prestakuntza kurtsoetan (GARATU) eta euskalduntze txandetan (IRALE) parte hartzeko eskubidea daukazu baldin eta zerbitzu aktiboan bazaude. Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenean jasotzen dira ordezkoentzako plaza kopuruak, hala nola beste gai batzuk Irakasleriaren Prestakuntzari buruz. Ikastaro hauetan parte hartzeko baldintzen inguruko zehaztapenak deialdietan islatzen dira.

BAIMENAK, LIZENTZIAK, BAJAK ETA EGOERA BEREZIAK

Lizentzia eta baimen batzuk hartzeko ezinbestekoa da urte oso bat lanean beteta izatea, beste batzuk, berriz, edonork har ditzake. Bestaldetik, Raxoik uztalean egindako dekretua aurretik onartuta zeuden hainbat eskubide murrizteria eterri da, beraz, egoera aldakorra da. Baten bat interesatzen bazaizu, eska iezaguzu informazioa.

Norberaren eginkizunetarako baimena

Urte betez etengabe lan egin ondoren eska daiteke. Egun horiek ere, zerbitzu egun bezala zenbatzen dira (puntuak pilatzeko, antzinatasunerako, etab.) baina ez dira kobratzen. Gainera, egun horiei dagokien kotizazioaren zatia ordainduko dute zure izenean (langileari dagokiona), eta hurrengo nominan diru hori deskontatuko dizute.

Amatasuna

Lizentzia hau 18 asteko da (baldin eta azken bost urtetan 6 hilabeteko kotizazioa bete baduzu); hauetatik 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu eta gainerako biak Eusko Jaurlaritzak. Amatasun lizentzia lanean zaudela hartzen eta bukatzen baduzu, primeran! 18 asteko lizentzia izango duzu. Zure kontratua lizentzia amaitu baino lehen bukatzen bada edota eten bat badu, egun bakarrekoa bada ere, Gizarte Segurantzako 16 asteak baino ez dituzu kobratuko, baina bai disfrutatu ahal izango dituzu gainontzeko 2 asteak.

Gaixotasun arrunta

Gaixorik egonda oporetako esleipenetan parte hartu ahal duzu, baina ezin duzu lanpostuaren jabetza sinatu. Hau da, ikastetxera joateko egunean alta egoeran egon behar duzu eta jabetza sinatu, bestela lanpostua galduko zenuke.

Ordezkapena betetzen ari zarela baja hartzan baduzu eta bitarte horretan titularra lanera bueltatzen bada, Gizarte Segurantzaren eskuetara pasatuko zara, zure alta hartu arte, eta paroa kontsumituko duzu. Ez dizute lanposturik eskainiko.

Lan istripua, lanbide gaixotasuna, amatasun lizentzia edota haudunaldi arriskutsua:

- Ikasturte hasierako esleipenetan lanpostua har dezakezu, eta baimena bukatzean lanpostu horretara sar zaitezke lanpostua bakantea baldin bada.
- Lanean ez bazaude eta ordezkapen berri bat eskaintzen badizute, uko egin diezaiokezu eta ukorik egin ez bazenu bezala dei egingo zaizu. Kasu horretan eskainitako ordezkapen egunek, puntuak pilatzeko balio dute baina ez dira kontuan hartuko udako ordainketak jasotzeko ezta antzinatasuna eta erretirorako ere ez.
- Alta hartu edo lizentzia bukatu ondoren lanerako prest zaudela jakinarazi behar zaio hamar eguneko epean lurralde-ordezkaritzetako bati egiazatzeko moduan. Hau egin ezean, zerrendetatik botako zaituzte.

Aldi baterako etetea (3 urte baino gazteagoa den semea/alaba zaintzeko denboraldia).

- Edozein unetan eskatu ahal da, behin baino ez ume bakoitzarengatik, eta, gehienez, adingabeak hiru urte bete arte luzatuko da.
- Lanpostua gordeko da etetea hasten den ikasturtean, baldin eta etetea hastean, onuraduna ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari bada.
- Aldi baterako etete egoera ez da jarduneko zerbitzutzat hartzen, ez da kobratzen eta egoera horretan ematen den denbora ez da kontuan hartzen antzinatasunerako, ez hirurtekoetarako, ezta LEPetarako ere.
- Hala ere, ordezkoen zerrenda berriro barematzerakoan kontuan izango da aldi baterako etete egoeran emandako denbora, lan egiteko prest egon izan balitz onuradunari egokituko litzaizkiokeen lanpostu hutsak edo ordezkapenak beteko zituzkeela aintzat hartuta.
- Onuradunak gutxienez 20 egun lehenago adierazi behar du, idatziz, lanera bueltatuko dela, seme-alabak hiru urte betetzean edo hori baino lehenagoko edozein unetan.

Oharra: informazio gehiagorako gurekin edota dagokizun lurralte ordezkaritzarekin jar zaitez harremanetan. Era egokian informatzea gomendatzen dizugu neurri honen inguruan nahaste ugari egon baita.

Heziketa zikloetako lanpostuak eta berariazkoak.

Heziketa zikloetako lanpostuen profilak ziklo bakoitzaren curriculumaren (OCD) arabera egiten dira.

Horrela, zikloetako lanpostu bakoitzari errealizazioen zerrenda bat dagokio, irakatsi beharreko moduluen araberakoa. Lanpostuen profilak hautagaiari ezagutarazi egin behar zaizkio lanpostua esleitu baino lehen.

Ikastetxe batean arazoak sortzen direnerako protokolo bat garatu da (46. artikulua). Protokolo horren arabera ordezko batek uko egin ahal dio lanpostu bati edukiak emateko gai ikusten ez badu bere burua. Baita ere jaso egiten da zuzendaritzak haren gaitasuna zalantzatan jartzen duenean jarraitu beharreko prozedura.

Honek ez du ekarriko zerrenda horretatik kanporatua izatea. Gauza bera egin daiteke berariazko profilak zein zailtasun bereziak dituzten bestelako lanpostuekin.

Helburua, azken urteotan sorturiko arazo batzuk saihestea litzateke, baina erne ibili behar da gehiegikeriarik edota nagusikeriarik gerta ez dadin.

Argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, deitu edo etorri sindikatura

ARAUDIA

ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA, ESPEZIALITATEAK...

Oinarrizko araudia:

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2012/09/1204082e.pdf>
<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2004/06/0403148a.pdf>

Ondorengo aldaketa partzialak:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die12/eu_2071/normativa_candi_susti_e.html

Ikasgaien kodeak:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die17/eu_candidat/adjuntos/codigo_asignaturas.pdf

Zerrenden irekitze eta funtzionamenduari buruzko beste argibideak:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die12/eu_2071/preguntas2_e.html

PLAZEN ESLEIPENAK

Ikasturte Hasierako Esleipenei buruzko ARAUDIA, ekainetik aurrera eskegi ohi dute, gure egoitzetan ere badago.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die7/eu_2066/ultimo_de_curso_e.html

LAN BALDINTZA OROKORRAK

[185/2010 DEKRETUA, EAEko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena. \(EHAA 2010-10-16\)](http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2010/10/185/2010_DEKRETUA_EAEko_irakasle_funtzionarioen_lan-baldintzak_arautzen_dituen_hitzarmena_(EHAA_2010-10-16).pdf)

IKASTETXEEEN FUNTZIONAMENDUA

Ikasturte Hasierako EBAZPENA urtero gaurkotu eta Saileko web gunean eskegi egiten dute, ikastetxe guztietan ere eskuragarri dago.

201/2008 DEKRETUA, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa. (**EHAA 2008-12-16**)

AJA (Antolakuntza eta Jarduera Araudia), ikastetxe bakoitzak berea du.

ROF (Reglamento de Organización y Funcionamiento) del centro a que te incorporas.

DECRETO 201/2008, sobre derechos y deberes del alumnado (**BOPV 16-12-2008**)

Resolución de comienzo de curso, se actualiza cada año y está disponible en todos los centros y en la web del departamento.

FUNCIONAMIENTO DE LOS CENTROS

DECRETO 185/2010, Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcional docente no universitario de la CAV. (**BOPV 16-07-2010**)

CONDICIONES GENERALES DE TRABAJO

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die17/es_2066/inicio_de_curso_c.html

Normativa de "Adjudicación de comienzo de curso", disponible en la web del departamento a partir de junio y en las sedes del sindicato.

ADJUDICACIONES DE PLAZAS

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die12/es_2071/aperturaлистас_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die12/es_2071/aperturaлистas_c.html)

Rebajamientos: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die17/es_candidat/indicce_listas_c.html

Codigos de asignaturas: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die17/es_candidat/adjuntos/codigo_asignatu ras.pdf

2012, procedimiento para cubrir información acerca de las necesidades temporales. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2012/10/1204756a.pdf> orden 9 de octubre

residencia. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/es/contenidos/informacion/die12/es_2071/adjuntos/normativa/normativ a_candidatos_acuerdo_50_km_2012_c.pdf renuncia a puesta de más de 50 km de la

erres. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2012/12/1205731a.pdf> corrección de

agosto de 2012, gestión de la lista de candidatos y candidatas. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2012/09/1204082a.pdf> orden de 27 de

NORMATIVA básica:

FUNCIONAMIENTO DE LAS LISTAS, ESPECIALIDADES...

NORMATIVA

Si necesitas alguna aclaración y/o quieres más información, no te cortes y llámanos.

El objetivo es bueno, pero hay que estar al loro ante posibles abusos o arbitrariedades. Esto no supondría la exclusión de la lista correspondiente. Lo mismo ocurriría con otras plazas de definición específica o de especial dificultad.

Si se desarrolla un protocolo que recoge el procedimiento a seguir si al llegar al centro se produce algún problema (art.46) En base a este protocolo, cualquier candidato/a podrá renunciar a una plaza de ciclos si no se considera capaz de impartir los contenidos correspondientes a dicha plaza.

También se recoge el proceso a seguir si desde la dirección del centro se considera que el/la candidato/a no es capaz de impartirla.

Se ha desarrollado un protocolo que recoge el procedimiento a seguir si al llegar al centro se produce algún problema (art.46) En base a este protocolo, cualquier candidato/a podrá renunciar a una plaza de ciclos si no se considera capaz de impartir los contenidos correspondientes a dicha plaza.

El objetivo es bueno, pero hay que estar al loro ante posibles abusos o arbitrariedades.

Plazas de ciclos formativos y específicos (protocolo).

